

COLEGIO PROFESIONAL DE TERAPEUTAS OCUPACIONALES
DEL PAIS VASCO



EUSKADIKO TERAPEUTA OKUPAZIONALEN LANBIDE
ELKARGOA

MEMORIA ANUAL DE ETOLE

AÑO 2018

VITORIA-GASTEIZ, FEBRERO 2019.

EDITADO POR:

Colegio Profesional de Terapeutas Ocupacionales de Euskadi-ETOLE.

AUTORES:

Junta Colegial de ETOLE.

DIRECCIÓN:

Colegio Profesional de Terapeutas Ocupacionales de Euskadi

Apartado de correos nº65 Vitoria-Gasteiz 01080

Teléfono: 644 524 492

Correo electrónico: etole@terapeutas-ocupacionales.es

0. AURKEZPENA

2018. urtea funtsezkoa izan zen Okupazio-terapiarako, Estatu mailan erkidego guztien baterako lanean egindako ahalegin guztien emaitzak ikusi baikenituen azkenean, sortu eta onartu baitzen Espainiako Okupazio-terapeuten Elkargo Profesionalen Kontseilu Orokorra (CGCPTOE). 2018ko abenduaren 18an onartu ziren behin betikoz estatutuak, nahiz eta BOEk (Estatuko Aldizkari Ofiziala) ez zituen argitaratu 2019ko urtarrilaren 18ra arte.
<https://www.boe.es/boe/dias/2019/01/18/pdfs/BOE-A-2019-604.pdf>

Barne-mailan, aldaketa nabarmena gertatu da ETOLeren batzordean; kide batzuek kargua utzi dute, eta kide berriak sartu dira. Elkargoaren estatutuak berrikusten eta aldatzen ere jarraitu dugu, nahiz eta oraindik bukatzeke dagoen testuen itzulpena, Eusko Jaurlaritzara bidali eta hark onar ditzan.

Batzordeak eskerrak eman nahi dizkie ETOLerekin lankidetzan diharduten pertsona guztiei, Prestakuntza-batzordeari eta Intrusismo-batzordeari, Okupazio-terapia ezagunagoa eta aintzatetsia izan dadin egiten duten lanagatik eta ahaleginagatik, bai eta une zehatzetan elkargoarekin kolaboratzen duten beste norbanako batzuei ere.

Euskadin eta, beste elkargo, elkarte eta erakunde batzuetako kideekin batera, estatuko lurralde osoan okupazio-terapiak duen egoera hobetzeko helburuz jarraitzen dugu lanean.

2019an, ilusioz eta grinaz jarraituko dugu lanean, gure lanbidearen eta elkargokideen alde hormak eraisten jarraitzeko. Azkenik, esan behar da memoria batean ezin dela islatu egunez egun egiten den lana, baina azkeneko hilabeteetako lorpenik garrantzitsuenen zertzelada batzuk eskainiko dizkizuegu, eta gure lana gertutik ezagutzera animatzen zaituztegu.

Agur t'erdi

Miren Valverde Maya

ETOLEko

lehendakaria

1. EGITURA ETA FUNTZIONAMENDUA:

MISIOA

Euskadiko Okupazio-terapeuten Elkargo Profesionala (ETOLE) kideen lanbidea eta interesak ordezkatzeko eta defendatzeko helburuz sortu zen, euskal gizartearen interes eta beharrek bat etorritz, eta lanbide soziosanitario honen jardunbide ona sustatzeko helburuz, erabiltzaileek beren eguneroko zereginetan autonomia hobetu dezaten, bizitza independente, egoki eta produktiboa lortzeko bidean lagunduz.

IKUSPEGIA

a) Okupazio-terapeutak jardun-esparru ezberdinetan dituen eginkizunen zabalkundea egitea: pertsonenganako eta haien osasun fisiko eta mentalarekiko jarduketak, zein autonomia-maila handiagoa eta bizitza-kalitate hobea lor dezan, haren ingurunera egokitzeko eginkizuna.

b) EAEko okupazio-terapeuten kolektiboa kohesionatzea. Tradizioz, kolektibo aktiboa da elkarteen esparruan, eta sektorearen barruan koordinazioa eta kohesioa sustatzen eta bultzatzen jarraitu nahi du elkargoak.

c) Profesionalen etengabeko prestakuntza sustatzea, zerbitzuen kalitatea hobetzea sustatuz.

GOBERNU-BATZORDEA

- **Lehendakaria:** Miren Valverde Maya
- **Lehendakariordea:** Sergio Pérez Badillo
- **Idazkaria:** Sara Martinez Macho
- **Diru-zaina:** Selene Velez Arribas
- **Probintzietako ordezkariak:**
 - **Araba:** Antonio Caridad de los Ríos

- **Gipuzkoa:** Ane Larrañaga Odriozola
- **Bizkaia:** Natalia Ceán Cabrera
- **Liburuzaina:** Oihane Llano Villar
- **Arabako trebakuntza-batzordea:** Raquel Ruiz Borrega, Leire Atiega Arroyabe, Nagore Salazar Sáez de Vicuña, María Ricarte Eguidazu, Henar Menéndez Caballero, Lorea Castillo Tabernero eta Leire Santana Lazcanoiturburu. Une zehatz batzuetan, Sara Santiago Jañezen eta Ana Fernández Virtoren laguntza izaten dugu.
- **Bizkaiko trebakuntza-batzordea:** Honako hauek osatzen dute, gaur egun, Bizkaiko prestakuntza-batzordea: Stefania Massaro, Nerea Gonzalez, Nerea Matas (gaur egun, amatasun-bajan dago), Leire López eta Janire Ibarrondo. Hala ere, iaz Amaia Goiriena Boyrak ere kolaboratu zuen (baieztatzeke dago)
- **Gipuzkoako batzordea:** gaur egun, ez dago inor batzorde horretan; batzordea osatzeko lehenengo urratsak ematen ari dira.

2. ELKARGOKIDEAK:

21 alta eta 8 baja egon dira 2018an. Urte amaieran, 199 elkargokide zeuden guztira.

Elkargokideek ETOLEk antolatutako batzarretan izan duten parte-hartzeari dagokionez, hona hemen datuak:

Ez-ohiko Batzarra, Donostian, 2018ko martxoaren 10ean: 12 elkargokide

Ohiko Batzarra Gasteizen, 2018ko irailaren 29an: 16 elkargokide.

3. DEFENTSA PROFESIONALA

2018an, ondoren adierazten diren kontsultak jaso ditu aholkularitza juridikoko zerbitzuak:

- 2018ko urtarrila: Hainbat gairi buruzko batzarra Aholkularitzan (intrusismoa, AGISAS, jarraitu beharreko prozedurei buruzko informazioa...).
 - 2018ko urtarrila/otsaila: Intrusismoarekin lotutako gaiei buruzko hainbat gestio Zumaiako Udalean (eskutitza eta mezu elektronikoa Kabia Fundazioari).
 - 2018ko martxoa: Elkargoaren estatutu berriak berrikusteko eta zalantzak argitzeko batzarra (aldez aurretik estatutuen azterketa sakona egin genuen).
 - 2018ko martxoa: Estatutu berrien testua azaltzeko idazkia.
 - 2018ko apirila: Hainbat kontsulta errazi erantzutea.
 - 2018ko ekaina: Ezgaitasunari eta Mendekotasunari buruzko Eusko Jaurlaritzaren Legea: lege horri buruzko zalantzak argitzea eta hainbat gestio egitea.
 - 2018ko uztaila: Elkargokide bati Kontsumitzaileen Informaziorako Durangoko Udal-bulegoan aurkeztutako erreklamazio bati buruzko kontsulta artatzea eta erreklamazioari erantzuteko idazkia egiten laguntzea.
- Urtean zehar, hainbat elkargokideren telefono bidezko kontsultak jaso ditu aholkularitza-zerbitzuak, gai errazei buruzkoak.

4.-INFORMAZIO- ETA ZEHAPEN-PROZEDURAK

2018. ekitaldi honetan ez da zehapen-prozedurarik egin.

5.-ETENGABEKO TREBAKUNTZA

2018an, ondorengo jardunaldia antolatu zuen Arabako batzordeak: “Gizakiaren Dimentsio Sexuala eta Dibertsitate Funtzionala:sexualitatearen okupazio-balioa”, 4 ordukoa, apirilaren 21ean., Prestakuntza-ikastaro bat ere antolatu zuen: “Eskuaren errehabilitazioa. Nahasmendu traumatologikoak eta erreumatologikoak”, 20 ordukoa, urriaren 5ean, 6an eta 7an.

“Gizakiaren Dimentsio Sexuala eta Dibertsitate

Funtzionala”

Helburu nagusia:

Gizakiaren Dimentsio Sexualaren eta disfuntzionaltasun organikoen edo ezgaitasunen arteko elkarrekintzari buruzko ezagupen teoriko-praktikoak barneratzea.

Helburu zehatzak:

- Dibertsitate funtzionala duten emakumeei eta gizonei ulertzeko eta arreta emateko erabili izan diren kontzeptuen eta paradigmen bilakaera historikoa eta soziala ezagutzea eta ulertzea.
- Gizakiaren sexualitatearekin lotutako ezagupenei eta balioei buruzko hausnarketari bide ematea, aurrez barneratutako aurreiritziak, mitoak eta ideiak deseraikitzea eta dibertsitate funtzionala duten emakumeen eta gizonen askotariko sexualitateetara errespetuzko, onarpenezko eta ulermenezko jarrera batetik hurbiltzea ahalbideratuko duena.
- Dibertsitate funtzionalen bat duten pertsonekin egiten den esku-hartzean Gizakiaren Dimentsio Sexualaren alor ezberdinetako eskariari erantzun eta arreta eman ahal izateko estrategiak eskaintzea.
- Okupazio-terapiak disfuntzionaltasun organikoren bat duten pertsonekin sexualitatearen alorrean esku hartzeko eskaintzen dituen aukerak ezagutzera ematea.

Jardunaldietan parte hartu zuten pertsonak adierazi zuten pozik gelditu zirela ekintza harekin, eta puntuazio altuak eman zituzten hainbat ataletan, hala nola irakaslea, antolamendua, gaia, etab.



ESKUAREN ERREHABILITAZIOA. NAHASMENDU TRAUMATOLOGIKOAK ETA ERREUMATOLOGIKOAK

Helburuak:

- Giharren eta artikulazioen balorazioa egiteko metodo nagusiak ezagutzea.
- Trebezia eta koordinazioa baloratzeko metodo nagusiak ezagutzea.

- Ebaluazio funtzionala egiteko, eta sentikortasuna eta edema baloratzeko metodo nagusiak ezagutzea.
- Honako hauen fisiopatologia, biomekanika eta tratamendua ezagutzea:
 - Erradioaren mutur distalaren haustura.
 - Eskuko tendoien lesioak.
 - Karpoko kanalaren sindromea eta nerbio periferikoen lesio traumatikoak.
 - Artrosi-prozesuek eta artritis erreumatoideak sortutako nahasmenduak.
- Edema akutu postraumatikoaren tratamendua ikastea.
- Patologia tratatzeko (patologia flexorea/artrosia/artritis erreumatoidea) mekanismo ortesiko nagusiak (ferulak) deskribatzea.

Ikastaroa amaitzen duenean, ikasle gai izango da:

- Esku traumatikoa baloratzeko sistema nagusiak deskribatzeko.
- Erradioaren mutur distalaren hausturetan, tendoien lesioetan (II zona), karpoko kanalaren sindromean eta nerbio periferikoen lesio traumatikoetan esku hartzeko tratamendu-programa bat egiteko.
- Edema akutu postraumatikoa tratatzeko neurri egokiak erabiltzeko (hesgailuak, ariketa-programak, edema eskuz mugitzea).
- Eskuko nahasmendu erreumatologiko eta artrosikoetarako aukera terapeutikorik egokiena klinikoki arrazoitzeko.

Ikastaroak oso harrera ona izan zuen parte-hartzaileen artean; puntuazio altuak lortu zituen irakaslearen lanari, ezagupenei eta bitarteko didaktikoei zein antolamenduari dagokienez. Parte hartu zuten guztiek nahi izango lukete gai horri buruzko ikastaro gehiago egitea eta ETOLerekin berriro prestakuntza-ikastaroak egitea. Gai bera sakonago lantzea proposatu zuten eta, aldi berean, aurrerago beste ikastaro eta jardunaldi batzuek egiteko iradokizunak planteatu zituzten.



Bizkaiko Prestakuntza-batzordeak, berriz, Okupazio-terapiaren urteurrena zela eta, jardunaldi bat antolatu zuen; ETOLEk egindako bideoa eman zuten jardunaldi hartan, non hainbat terapeutak beren esperientzia kontatzen duten.

Pilar Esteban Peñalbak ere hartu zuen parte, eta okupazio-terapeuta gisa izan duen esperientzia eta bizipenak partekatu zituen entzuleekin.

Okupazio-terapiari buruzko jardunaldien helburuak:

- Lanbide bereko beste kide batzuekin batera, Okupazio-terapiaren eguna ospatzea.
- Alor ezberdinetan diharduten eta beren ibilbide profesionaleko une ezberdinetan dauden okupazio-terapeutak ezagutzea, eta guztiekin norbere esperientziak partekatzea.
- Sare sozialetan ekitaldiaren berri ematea, gure figura eta elkargoaren jarduna ezagutzera ematen jarraitzeko.
- Gutako askorentzako erreferente izan den eta berriki erretiratu den terapeuta bat omentzea.

Oso une atsegina izan zen; handia izan zen parte-hartzea, eta gehienak gelditu ziren bazkaltzera. Atsegina izan zen; gainera, etorkizunerako (batzordeak antolatzeko edo egiteko) ideiak eta proposamenak sortu ziren, eta parte-hartze txikiagoa duten terapeuta batzuk ezagutu genituen.

27 de Octubre - *Día Mundial de la Terapia Ocupacional*



COLEGIO PROFESIONAL DE TERAPEUTAS OCUPACIONALES
DEL PAIS VASCO
EUSKADIKO TERAPEUTA OKUPAZIONALEN LANBIDE
ELKARGOA

Celebración del día de la Terapia Ocupacional

- 🕒 27 de Octubre de 2018 a las 11.00
- 📍 Restaurante Patxi Larrocha C/Pablo de Alzola 8.
- 📺 Reproducción del vídeo "Experiencias del Terapeuta Ocupacional en diferentes campos"
- 🗣️ Entrevista con Pilar Esteban Peñalba
- 🍽️ Comida en compañía de los Tos que se animen.

Confirma tu asistencia a través de este enlace cuanto antes:
¡Te esperamos!



6. OKUPAZIO-TERAPIA EZAGUTZERA EMATEA ETA ZABALKUNDEA EGITEA

Bizkaiko Osasun Foroa.

Osasun Foroak antolatutako hiru bileratara joan da ETOLE 2018an, eta Bizkaiko Profesionalen Osasun Foroko lehendakariorde aukeratua izan da.

Okupazio-terapiari buruzko Estatuko I. Biltzarra antolatzeko batzordea

Halaber, 2019ko urrian Madrilén egingo den Okupazio-terapiari buruzko Estatuko I. Biltzarraren Koordinatzailea da ETOLE. Sergio Pérez Badillo da Biltzarreko lehendakaria, ETOLEko elkargokidea eta lehendakariorde eta Gipuzkoako ordezkari izandakoa. Azpimarratzekoa da lurralde-erakunde ofizialek, elkargoek zein elkarteek, antolatutako lehen biltzarra dela, eta Okupazio-terapiaren nazioarteko egunarekin batera egingo dela, lanbideari ikusgarritasun handiagoa emate aldera.

ETOLEren newsletter-a

Urtean zehar 15 newsletter bidali diegu guztira gure elkargokideei, albiste

garrantzitsuenen, ikastaroen eta lan-eskaintzen inguruko informazioarekin. Elkargokideen %50ek ikusi ditu buletinok.

ETOLE sare sozialetan (Facebook eta Twitter)

2018an, gure sare sozialak eguneratzen jarraitu dugu; gure elkargokideekin, beste okupazio-terapeuta batzuekin eta, oro har, jendearekin zuzeneko eta hurbileko harremana izateko modua dira sare sozialak. Horrez gain, gure diziplinaren



zabalkundea egiteko tresna gisa erabiltzen saiatzen gara.

Nº de personas que nos siguen a 31
de diciembre de 2018 en Facebook:
2075

Twitter: 961 jarraitzaile, 2018ko abenduaren 31n



7. LANKIDETZA ESTATU MAILAN

2018an, estatutuak onartu dira Espainiako Okupazio-terapeuten Elkargoen Kontseilu Orokorrean, estatutuok argitaratzeko zain gaude.

Halaber, okupazio-terapeuten erakundeen foroaren Lankidetza-hitzarmenaren sinatzaile izaten jarraitzen du ETOLE elkargoak. 2018an, Foroak erabaki du Okupazio-terapiari buruzko Estatuko I. Biltzarra antolatzea (2019ko urriaren 25ean, 26an eta 27an), erakundeen foroan dauden eta parte hartzea erabaki duten erakundeekin batera.

Bestalde, SOCINTOri dagokionez, bi batzar egin dira 2018an, Madrilen; batzar horietan, webgunearen aurkezpen ofiziala egin da eta aktan jasota geratu diren gaiak landu dira.

Elkargokideen etengabeko prestakuntzari dagokionez, lankidetza-hitzarmena sinatu dugu FNN enpresarekin, prestakuntzan hobekuntza ekonomikoak eskuratu ahal izateko.

Azkenik, urte amaieran lehenengo kontaktuak izan ditugu EAEko lehen mailako arretako profesionalen elkartearekin (APATPV), etorkizunean elkarrekin lan egin eta lankidetzan jardun ahal izateko helburuz.

8.-LIBURUTEGIA

2018an, sei elkargokidek erabili dute liburuaren mailegu-zerbitzua; 14 liburu erabili dira, guztira.

Bederatzi ale gehitu zaizkio liburutegiko katalogoari.

9.-KUDEAKETA EKONOMIKOAREN URTEKO TXOSTENA

2018ko BALANTZE EKONOMIKOA

DIRU-SARRERAK.	
Elkargokideen kuotak	23.520,51€
Eskuei buruzko ikastaroa	4.320€
“Gizakiaren Dimentsio Sexuala eta Dibertsitate Funtzionala” ikastaroa	480€

Diru-sarrerak, guztira	28.320,51€
GASTUAK	
Bulegoaren alokairua	-3.267€
Aholkularitza-zerbitzuak	-2.194,08€
Aseguru-primak	-2.040€
Batzordearen gastuak	-3.314,58€
Komunikazioak-telefonoa.	-1280,18€
Itzulpenak	-252,76€
Beste zerbitzu batzuk	-3.912,49€
Konponketa- eta kontserbazio-lanak	-482,06€
Gastuak, guztira.	-16.743,15€
AZKEN EMAITZA	
Banku-komisioen gastuak	-373,15€
Finantza-emaiza, guztira	
2018ko ekitaldiko emaitza.	11.577,36€